

Lider bila

Duela hamar bat urte, Suitzako Davosen eragile ekonomiko eta politiko hegemonikoek –urteroko batzarrean– merkatuaren fundamentalismoa bere gorengo mailara ekarri zuten, merkatua gobernuen gaintik egon beharra aldarrikatu zutenean. Geroztik, muturreko lelo hori praktika-ramateko neurriak hitzartu dituzte munduko norabidea baldintzatzeko egin ohi duten urtez urteko topaketetan.

Izan ere, hamarkada honetan gobernuak uko egin diote ekonomian egin izan duten ohiko esku-hartzeari. Honela bada, lan harremanak liberalizatuz enpresarientzat ahalmena handitu eta langileen eskubideak murriztu egin dira. Finantza merkatuen liberalizazio osoak, kapitalen higikortasun askeak eta lekualdaketek *dumping* sozial eta fiskala ekarri dute. Hori dela eta, zerga sistemak zeharkako zergen eta lanaren gaineko zamapetzearen oinarrien gaineko eredueta jotzen ari dira gero eta gehiago.

Davosen duela aste gutxi eta Japoniako Zazpi Handien gailurrean berriki, egoeraren larritasunaz jabetu bide dira. Egindako bidearen ondorenak bistakoak direnean handi-mandien arteko ahots argienak abiapuntuan erratu egin zirela onartzeri iritsi dira, alegia merkatuak autoregulatzen direla eta berez helden direla *oreka* egoerara baieztea zalantzan jar-

tzen dute orain. Kontrolik gabeko eragile eta produktuak biderkatu egin dira finantza arloan batik bat eta horrek desegonkortasuna barreiatu du munduko ekonomiara. *Subprime* hipoteken ingu-



DANI BLANCO

ruko gertakizunek finantza merkatuak zabor-tegiak bihurtu direla erakusten dute, ebaluaketa agentziek kalitate goreneko salkaritzat hartu dituzten arren. Honek finantza erakundeen arteko konfidantza eza zabaldu du eta hauxe da krisiaren bozgorailurik handiena.

Amerikako Estatu Batuetako (AEB) ekonomiaren eta dolarraren hegemonia bereak egin dituela esateko gero eta zantzu gehiago dago. II. Mundu Gerraren ekonomia ordenua bere lidergoan eraiki zenetik AEBak munduko gainerako herriei ezarritako ekonomi legeen gaintik egon dira. Nolanahi ere, gaur egun

bezala beste garai batzuetan ere, kanpo eta barne defizit izugarriak metatu ditu erraldoi amerikarrak. NMFaren edo Munduko Bankuaren aldetik ez dute jaso gainerako herriek –garapen bidekoak batez ere– egoera arinagoetan egonagatik ere jaso izan duten erantzun gogorra. Izan ere, defizit horiek orain arte finantzatu ahal izan dira arazo handirik gabe dolarrak jaulkiz eta honen gaineko munduko konfiantza mantentzen zen bitartean. Baina egoera hau oso desegonkorra da eta oraingo finantza krisiak edo etorkizuneko beste larrialdi batek hankaz gora ipin lezake.

Jakina da AEBetako gaur egungo defizit bikoitz jasangaitz horren zio nagusia Ekialde Hurbilean azken urteetan indarrean ipinitako gerra makineria dena eta honi lotu behar zaio zergak jaisteko etengabeko soka eragin izana politika fiskal atzerakoienak bultzatuz –Europako paraje hauetan hain sutsuki kopiatzen direnak hain zuzen–. Bush presidentearen zorabioari gehitu behar zaio dolarrari lehiakide indartsua sortu zaiola euroaren kasuan eta yena ere bere lozorrotik atera berri dela. Kontestu honetan *subprime* hipotekek lehertarazi duten krisiak orain arteko AEBetako lidergoa are zalantzarriagoa egiten du.

Munduko gobernagarritasuna hankaz gora dagoen honetan Davoseko batzarrean lidergo ekonomiko berriaren premia mahai gainean ipini da lehendabizikoz. ■

« Bush presidentearen zorabioari gehitu behar zaio dolarrari lehiakide indartsua sortu zaiola euroaren kasuan eta yena ere bere lozorrotik atera berri dela. Subprime hipotekek lehertarazi duten krisiak orain arteko AEBetako lidergoa are zalantzarriagoa egiten du »

